

2009ko APIRILAREN 23ko UDALBATZARRA
PLENO DE 23 DE ABRIL DE 2009

BERTARATUAK / ASISTEN:

ALKATEA / ALCALDE: JOSU IRATZOKI AGIRRE

ZINEGOTZIAK / CONCEJALES:

AMAYA TELLECHEA INDA, RAMON ELGORRIAGA ERRANDONEA, AINTZANE ARTOLA URRUTIA, HELENA SANTESTEBAN GUELBENZU, ALFREDO GOYENECHÉ INÉS, RAFAEL ECHEVERRÍA PERURENA, SANTIAGO ALZUGUREN MATXIKOTE, ISIDORA AGUIRRE UBIRIA, M^a SOL MARGARITA TABERNA IRAZOQUI, JON ABRIL OLAETXEA.

IDAZKARIA / SECRETARIA: PILAR CHUECA INTXUSTA.

BERTARATU EZ DIRENAK / NO ASISTEN:

Inor ez.

Tokia: BERAko Herriko Etxea.

Eguna: 2009-04-23

Ordua: 20:30

Bilera-mota: ohikoa, 1. deialdia

Lugar: Casa Consistorial de BERA.

Día: 23-04-2009

Hora: 20:30

Tipo sesión: ordinaria, 1^a convocatoria.

TRATATZEKO GAIK:

ASUNTOS A TRATAR:

1.- AZKENEKO AKTA ONARTZEA.-

1.- APROBACIÓN ACTA SESIÓN ANTERIOR.-

2009ko martxoaren 24an egindako bileraren akta ikusirik, aho batez, ONARTU DA.

Vista el acta de la sesión celebrada el día 24 de marzo de 2009, por unanimidad SE APRUEBA.

2.- UDAL PLAN OROKORRAREN ALDAKETA EGITURATZAILEA, 4. LURZORU URBANIZAGARRI EZ SEKTORIZATUKOA (SUNS4), HASIERA BATEZ ONESTE.

2.- APROBACIÓN INICIAL DE MODIFICACIÓN ESTRUCTURANTE DEL PLAN GENERAL MUNICIPAL EN SUELO URBANIZABLE NO SECTORIZADO 4 (SUNS4).

La secretaria informa sobre el expediente y

Idazkariak espedientearen informazioa eman du eta aho batez, legeak eskatutako gehiengo osoa bete izanik, honako erabakia hartu dute:

Ikusirik, Udal Plan Orokorraren aldaketa egituratzailea, 4. Lurzoru urbanizagarri ez sektorizatukoa (SUNS4), egiteko espedientea.

Proiektua: Xabier Lopez de Uralde arkitektoak egina, 2009ko martxokoa.

Ikusirik, Toki Administrazioari buruzko 6/90 Foru Legearen 322.1.a) artikuluari jarraikiz Idazkaritzak egindako txostena.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legearen 79.2), 70., 71. eta beste artikuluko batzuekin bat etorritik.

Gehiengo absolutuaz, ERABAKI DA:

1) **Lehen adierazi den Udal Plan Orokorren aldaketa egituratzailea, 4. Lurzoru urbanizagarri ez sektorizatukoa, (SUNS4) hasiera batez onartzea.**

2) **Aipatu aldaketa hilabeteko epean jendaurrean jartzea, Nafarroako Foru Komunitatean argitaratzen diren egunkarrietan eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean aurrez aurreko iragarkia jarrita.**

3) **Nafarroako Gobernuko Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentura behar den txosten orokorra egin dezala hasiera batez onartu den aldaketa hau bidaltzea.**

4) **Hasiera batez onartutako aldaketa hau "Confederación Hidrográfica del Cantábrico" izenekora bidaltzea behar den txostena egin dezan.**

5) **Udal Plan Orokorraren aldaketa honek eragindako zonaldean, hots, Plan horretako 4. Lurzoru urbanizagarri ez sekto-**

por unanimidad, que represente la mayoría absoluta legalmente exigida, adoptan el siguiente acuerdo:

Visto proyecto de modificación de determinaciones de ordenación estructurante en el Suelo Urbanizable no Sectorizado 4 (SUNS4) del Plan General Municipal.

Proyecto: Redactado por el arquitecto Xabier Lopez de Uralde de fecha marzo de 2009.

Visto informe de Secretaría emitido según lo establecido en el artículo 322.1.a) de la Ley Foral 6/90 de Administración Local.

De acuerdo con lo establecido en el artículo 79.2), 70, 71 y otros de la Ley Foral 35/2002 de Ordenación del Territorio y Urbanismo.

Por mayoría absoluta, SE ACUERDA:

1) Aprobar inicialmente la modificación estructurante en el Suelo Urbanizable no Sectorizado 4 (SUNS4) del Plan General Municipal, antes reseñada.

2) Someter dicha modificación a exposición pública durante el plazo de 1 mes, previo anuncio en el Boletín Oficial de Navarra y en los diarios editados en la Comunidad Foral de Navarra.

3) Remitir esta modificación inicialmente aprobada al Departamento de Vivienda y Ordenación del Territorio del Gobierno de Navarra para que emita el informe global correspondiente.

4) Remitir esta modificación inicialmente aprobada a Confederación Hidrográfica del Cantábrico para la emisión del informe correspondiente.

5) Señalar que el otorgamiento de licencias de obras queda suspendida en el área afectada por esta modificación del Plan General Municipal, esto es, en la zona señalada

rizatuko eremuan, obra baimenak ematea eten gelditu direla seinaleztatzea.

como Suelo Urbanizable no Sectorizado 4 del citado Plan.

6) 4. Lurzoru urbanizagarri ez sektorizatuko eremuko jabeai erabaki hau jakinaraztea.

6) Notificar este acuerdo a los propietarios incluidos en el ámbito del Suelo Urbanizable no Sectorizado 4.

3.- MOZIOA: BIZIARTEKO ZIGORRIK EZ! HERIOTZA ZIGORRIK EZ! EUSKAL PRESOAK EUSKAL HERRIRA! (DAGOZKIEN ESKUBIDEEN JABE).

3.- MOCIÓN: BIZIARTEKO ZIGORRIK EZ! HERIOTZA ZIGORRIK EZ! EUSKAL PRESOAK EUSKAL HERRIRA! (DAGOZKIEN ESKUBIDEEN JABE).

Alkateak mozioa irakurri du.

El Alcalde lee la moción.

Helena Santestebanek:

Dispertsioa presoan gizarteratzearen aurka doa eta haien familiei ematen zaion beste zigor gehiago da.

Preso guztietaz tratatu behar zen mozioan.

Zenbat familiak ez dute ulertuko zergatik mozioan biktima batzuetaz bakarrik oroitzen dira mozioan.

Dena den mozioaren testuarekin bat datoz.

Helena Santesteban.

La dispersión va contra la reinserción de los presos y es un castigo añadido a las familias.

Debería de tratarse en la moción sobre todos los presos.

Muchas familias no van a entender que en la moción sólo se refiera a un tipo de víctimas.

No obstante, están de acuerdo con el texto de la moción.

Jon Abrilek:

Erabat ados.

Jon Abril:

Totalmente de acuerdo.

Xanti Alzugurenak:

Abstenitu behar dira.

Xanti Alzuguren:

Se van a abstener.

Botazioa egina 9 boto alde eta 2 abstentzio agertu dira, beraz, mozioa onartu dute, honako testua izanik:

Realizada la votación resultan 9 votos a favor y 2 abstenciones, por lo que se aprueba la moción con el siguiente texto:

MOZIOAREN ARRAZONAMENDUA

Espainiak eta Frantziak Euskal Herriaren eskubideak errekonozitzeko bidea baztertu eta eskubide horiek murriztu eta ezabatzeko hautua berretsi dute azken garaioan. Finean, gatazka politikoa iraunarazi eta luzatzeko apostua egin dute.

Euskal Herriari salbuespen egoera iraunkorra inposatu izan zaio, deklaratu ala deklaratu gabea. Egun, demokrazia formalaren arauak hankaz gora ipini dituzte, 'de facto' salbuespen egoeran sakonduz. Eguneroko politikagintzan bezala espexitetan ere bai.

Euskal Preso Politikoaren kopurua azken 30 urteotako inoizko altuena da: **750** euskal herritar Frantzian eta Espainian preso.

Espetxe politika, joko politikoaren elementu gisara baliatzen jarraitzen dute. Interes politikoetara hertsiki lerratua dute, presoak Euskal Herritik isolatu nahi dituzte, suntsitzea helburu dute, etsipena eragin. Gatazka politikoan eragiteko baliatzen dute.

Sakabanaketa politika martxan jarri zutenetik 20 urte pasatu direnean, indarrean da oraindik. Kilometro kopuruaz harago etengabeko eskubideen murrizketa suposatzen du sakabanaketak. Urruntzea, bakartasuna eta isolamendua. Oinarrizko eskubideen urraketa gauzatzeko inpunitatea. Presoei ezezik senide eta lagunei ere zuzenki eragiten die. **38** hildako preso eta senide artean.

Urrats berriak ezagutu ditugu:

- Biziarteko espetxe zigorra inposatu dute, izan perpetua Frantzian, izan 40 urte arteko zigor gorena Espainian. Doktrina berriak asmatu dituzte (Auzitegi Goren Espainola) kondena beteta duten presoei eta kondizionalean beharko luketen presoei askatasunerako eskubidea ukatzeko. Berriki, kaleratuak direnei Euskal Herrian libre bizitzeko eskubidea baldintzatu eta murriztu diete.

- Preso gaixo larriak heriotza zigorrera kondenatu dituzte.

OSOKO UDAL BATZARREAN EZTABAIDATU ETA ONARTZEKO ADIERAZPENA

1- Frantzia eta Espainiak euskal presoei aplikatzen dieten politika penitentziarioa amaitu dadin eskatzen dugu, oinarrizko eskubideak urratzen dituelako. Sakabanaketari behin betirako amaiera ematea eskatzen dugu. Sakabanaketa sustatu dutenek, indargabetu dezaten eskatzen dugu.

2- Gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten presoak berehala eta baldintzarik gabe kaleratzea eskatzen dugu.

3- Biziarteko espetxe zigorra indargabetu dadin eskatzen dugu:

- Kondena beteta duten presoak berehala eta baldintzarik gabe kaleratuz

- Kondizionalean dauden presoak ere berehala kaleratuz.

- Kaleratuko diren presoei Euskal Herrian libre eta baldintzarik gabe bizitzeko eskubidea errespetatuz.

4- Isolamendu eta bakartasunaren kontra EPPek Euskal Herrian egoteko/biltzeko eskubidea dute. Dagozkien eskubideen jabe, Euskal Herritaruak izan daitezela eskatzen dugu.

5- Aldarrikapen horien inguruan presoen borrokaldiarekin bat egiten dugu.

6- Antolatuak diren mobilizazio eta ekimenetan parte hartzeko deia egiten diegu herritarrei.

7- Erabaki honen berri herritarrei jakinaraztea.

4.- ETXALARKO UDALAREN ERABAKIA: KORREOSEN ESKAERA POSTONTZI KONTZENTRATUAK JARTZEKO.

4.- ACUERDO DEL AYUNTAMIENTO DE ETXALAR: SOLICITUD DE CORREOS PARA COLOCAR BUZONES CONCENTRADOS.

Alkateak gaia azaldu ondoren, aho batez, erabaki hau hartu dute:

El Alcalde expone el tema y, por unanimidad, adoptan el siguiente acuerdo:

Ikusirik, Etxalarko Udalak Korreosen es-

Visto acuerdo adoptado por el Ayuntamiento

kaera postontzi kontzentratuak jartzekoari buruz hartutako erabakia.

de Etxalar respecto a la solicitud de Correos de colocar buzones concentrados.

ERABAKI DA:

SE ACUERDA:

1) Lehen aipatu den Etxalarko Udalaren erabakiari atxikitzea.

1) Adherirse al acuerdo del Ayuntamiento de Etxalar antes reseñado.

2) Erabaki hau “S.E. de Correos y Telégrafos” izeneko enpresari eta Etxalarko Udalari bidaltzea.

2) Remitir este acuerdo a la empresa S.E. de Correos y Telégrafos y al Ayuntamiento de Etxalar.

5.- BERAKO EUSKARA BATZORDEA: UEMAN SARTZEKO PAUSOAK EMATEKO ESKAERA.

5.- BERAKO EUSKARA BATZORDEA: SOLICITUD DE REALIZACIÓN DE TRÁMITES PARA ENTRAR EN UEMA.

Ramón Elgorriagak gaia azaldu du ondoren honako adierazpen hauek egin dira:

Ramón Elgorriaga explica el asunto, tras lo cual se realizan las siguientes intervenciones:

Helena Santestebanek:

Helena Santesteban:

Euskera arloan dagoen dirua optimizatu egin behar da, ikusi lehentasunak, ea Mankomunitateak jarduera horiek egiten ditu edo osagarria den.

Hay que optimizar el dinero destinado al euskera, ver las prioridades, si la Mancomunidad ya realiza esas mismas actuaciones o es complementaria.

Idea ongi iruditzen zaio baina aztertu behar da Mankomunitatetik eta euskararen aurrekontua igo gabe, beste arloetan murrizten ari da eta.

La idea le parece bien pero hay que ver desde la Mancomunidad y sin aumentar el presupuesto del euskera, en otras áreas se está disminuyendo.

Lehenago ezagutu nola osatu behar diren biak eta, agian, datorren urterako utzi.

Antes hay que ver como se complementan las dos y, quizás, dejar para el año que viene.

Jon Abrilek:

Jon Abril:

Mankomunitatearen hutsuneak betetzeko da, Udalaren funtzionamenduaren sartuko dira, bata eta bestea indartuko dira.

Complementa a la Mancomunidad, entrarán en el funcionamiento del Ayuntamiento, una y otra se reforzarán.

Inbertsioaren afera da eta euskararen ez da inoiz ere inbertitu, egin dena langileen borondatearengatik izan da.

Es un tema de inversión y en el euskera no se ha invertido nunca lo que se ha hecho ha sido por voluntad del personal municipal.

Ramon Elgorriagak:

Ramón Elgorriaga:

Mankomunitateak bere alorra du eta UEMA-k berea.

La Mancomunidad tiene su espacio y UEMA el suyo.

Alkateak:

El Alcalde:

UEMA-k azaldu du eta bere plana badakite,

UEMA ya se ha explicado y conocen su plan,

dokumentazioa bera izanen dute orain edo gero.

UEMA-n sartzea euskararekiko motibazio bat da.

Santiago Alzugurenek:

Bera ez dago ez Euskera Mankomunitatean ez da ere Euskara Batzordean.

Diruaren arazoa da. Datorren urterako begiratu behar da gastua sobera kargatu gabe eta ikusi UEMAk eta Mankomunitateak nola egiten duten.

Denetan gastua mozten ari da eta honetan ez..

Gai hau non eztabaidatu behar denaren diskusioa sortu da ea Mankomunitatean eta Euskara Batzordean edota Plenoan ere.

Mankomunitatean eta Batzordean EA-ko ordezkariak nolako lana egiten duen atera denez, berak bere burua defendatu du bere arrazoiak emanez eta nahi izanez gero beste pertsona izendatzen ahal dutela erranez.

Eztabaida honen ondoren, bozketa egin da honako emaitza izanik:

Aldeko botoak: 6 (2 Aralar eta 4 -beste zinegotziak-)

Abstentzioak: 5 (3 EA eta 2 EAJ-PNV)

Hori dela eta, honako erabakia hartu dute:

Ikusirik, Berako Euskara Batzordeak egini-ko proposamena non UEMAn sartzeko pausuak ematea eskatu duen.

ERABAKI DA:

1) UEMAn sartzeko pausuak ematea.

6.- BANDOAK ETA ALKATEAREN EBAZPENAK.-

Honako bando eta Alkatearen ebazpen hauetaz jakinen gainean gelditu dira:

la misma documentación tendrán ahora o luego.

Integrarse en UEMA supone una motivación para el euskera.

Santiago Alzuguren:

El no está ni en la Mancomunidad ni en la Comisión de Euskera.

Es problema de dinero. Hay que ver cara el año que viene sin ampliar el gasto y ver qué hacen la Mancomunidad y UEMA.

En todo se está disminuyendo el gasto y en esto no.

Surge una discrepancia sobre cual es el lugar donde se debe discutir este tema si en la Mancomunidad y Comisión de Euskera o en el Pleno también.

Se pone en duda el funcionamiento del representante de EA en la Comisión y en la Mancomunidad, él mismo se defiende dando sus razones y diciendo que si se estima oportuno se puede nombrar otro representante.

Tras la deliberación se realiza la votación con el siguiente resultado:

Votos a favor: 6 (2 Aralar y 4 el resto de concejales)

Abstenciones: 5 (3 EA y 2 EAJ-PNV).

Tras lo cual, se adopta el siguiente acuerdo:

Vista propuesta de la Comisión de Euskera de Bera en la que solicita que se realicen los trámites para formar parte de UEMA

SE ACUERDA:

1) Realizar los trámites para la integración en UEMA.

6.- BANDOS Y RESOLUCIONES DE ALCALDÍA.-

Se dan por enterados de los siguientes bandos y resoluciones de la Alcaldía:

1) Bandoak: B05/2009tik B9/2009ra.

2) Ebazpenak: 2009ko martxoaren 23ko 54. ebazpenetik 2009ko apirilaren 8ko 72.era arte.

Gai zerrendatik kanpo, premiazko bozketa egin ondoren, aho batez, legeak eskatutako gehiengo absolutua betea izanik, honako gai hauek tratatu dira:

7.- 21 AGENDAN BORTZIRIETAKO ESKUALDEKO EKINTZA PLANA ONESTEA.

Aho batez, erabaki hau hartu dute:

Ikusirik, 21 Agendarako Bortziritako Eskualdeko Ekintza Plana.

ERABAKI DA:

1) 2009ko apirilaren 7an bileran adostu zen 21 Agendarako Bortziritako Eskualdeko Ekintza Planaren errebisioa onestea.

8.- “EZ GAITEZEN ENGAINA: SISTEMA BERA DA BALIO EZ DUENA”-ren MOZIOA: ARANTZA, BERA ETA ETXALARKO ALKATEAK.

Alkatea mozioa irakurtzen hastean EA eta Aralarren aldetik krisiari buruz Lesakako Udalak erabaki bat bidali zuela eta ez dela tramitatu, deus ere erran gabe artxibatu eta 3 Alkateek mozio hau eta manifestazioaren deialdia egin dutela leporatu diote.

Jon Abrilek:

1) Bandoak: del B05/2009 al B9/2009.

2) Resoluciones: De la resolución nº 54 de 23 de marzo de 2009 a la nº 72 de 8 de abril de 2009.

Fuera del orden del día, previa votación de urgencia, por unanimidad, que representa la mayoría legalmente exigida, se tratan los siguientes asuntos:

7.- APROBACIÓN DEL PLAN DE ACCIÓN DE LA AGENDA 21 PARA LA COMARCA DE BORTZIRIAK.

Por unanimidad, adoptan el siguiente acuerdo:

Vista la revisión del Plan de Acción Comarcal de Bortziriak.

SE ACUERDA:

1) Aprobar la revisión del Plan de Acción de la Agenda 21 de la Comarca de Bortziriak acordado en la reunión de 7 de abril de 2009.

8.- MOCIÓN “EZ GAITEZEN ENGAINA: SISTEMA BERA DA BALIO EZ DUENA” ALCALDES DE ARANTZA, BERA y ETXALAR.

Al iniciar el Alcalde la lectura de la moción por parte de EA y Aralar le reprochan que el Ayuntamiento de Lesaka remitió un acuerdo sobre la crisis y no se ha tramitado, sin decir nada se ha archivado y los otros 3 alcaldes han realizado esta moción y la convocatoria para una manifestación.

Jon Abril:

Ez dela forma gauzak egiteko

No son formas de hacer las cosas.

Marisol Tabernak:

Protagonismoaren interesa agertzen da.

Marisol Taberna:

Se demuestra interés por el protagonismo.

Helena Santestebanek:

Dirudenez gai honetan sindikatu bakoitza, alkate bakoitza agertu behar da, inportanteena da bakoitzak zer egin behar den erratea da.

Helena Santesteban:

Según parece sobre este tema cada sindicato, cada alcalde tiene que aparecer, lo más importante es decir cada uno lo que hay que hacer.

Santiago Alzuguren:

Irtenbide estrategiko bateratuak egin behar dira.

Santiago Alzuguren:

Hay que crear líneas estratégicas conjuntas.

Alkateak:

Igual ez dute asmatu forman, asmoa zen ahalik eta atxikimendu gehien lortu.

El Alcalde:

Igual no han acertado en la forma, la intención era obtener el mayor número de adhesiones.

Helena Santestebanek:

Formarengatik fondoarengatik baino gehiago aurkako botoa eman behar dute.

Helena Santesteban:

Más por la forma que por el fondo van a votar en contra.

Marisol Tabernak:

Lesakako proposamena ez da tramitatu eta prentsaren bidez 3 alkateek, inori erran gabe, atera dute oraingoa.

Marisol Taberna:

La propuesta de Lesaka no se ha tramitado y a través de la prensa, sin contar con nadie, aparece la propuesta de los 3 alcaldes.

Santiago Alzuguren:

Ez forman ez fondoan ez daude ados, protesta gisa agian balio du baina ez du aukerarik ematen.

Santiago Alzuguren:

Ni en la forma ni en el fondo están de acuerdo, como protesta igual puede valer pero no presentan ninguna alternativa.

Bozketa eginda, zera agertu da:

Aldeko botoak: 4 (beste zinegotziak)

Aurkako botoak: 7 (3 EA, 2 EAJ-PNV eta 2 Aralar)

Realizada la votación resulta:

Votos a favor: 4 (resto concejales)

Votos en contra: 7 (3 EA, 2 EAJ-PNV y 2 Aralar).

Beraz, mozioa ez da onartu.

Por lo que la moción no se aprueba.

9.- “ELAREN PROPOSAMENA EKONOMIA-KRISIALDIARI BURUZ” MOZIOA.

9.- MOCIÓN “ELAREN PROPOSAMENA EKONOMIA-KRISIALDIARI BURUZ”.

M^a Sol Taberna zinegotziak mozioa irakurri du.

La concejal M^a Sol Taberna lee la moción.

Alkateak haiek eginiko manifestazioaren deialdian gehitzeko proposamena egin du

El Alcalde propone añadir la convocatoria a la manifestación convocada por ello pero no

baina besteek ez dute onartu.

se acepta.

Segidan bozketa egin da honako emaitza izanik:

Seguidamente se realiza la votación resultando lo siguiente:

*7 boto alde: (3 EA, 2 EAJ-PNV eta 2 Aralar.
4 abstentzio: beste zinegotziak*

*7 votos a favor: 3 EA, 2 EAJ-PNV y 2 Aralar.
4 abstenciones: resto de concejales.*

Beraz, mozioa onartu dute honako testua izanik:

Por lo que, se aprueba la moción con el siguiente texto:

2009ko martxoaren 10ean Jose Maria Arribillaga Pikabea jaunak idatzi bat aurkeztu du ELA sindikatuaren izenean. Idatzi hori eta Udalak esku artean duen dokumentazioa aintzat hartuta Udalbatzak honako erabaki hau hartu du aho batez:

“Korporazio honek, oraingo egoeraren larritasunaz jabeturik, bere hartzen du hemengo enpresei helaraztea zein garrantzitsua den enpleguari eustea. Halaber Foru Gobernura ere joko du, eskualde honetako lan-arazoren berri jakn dezan, eta hemengo ordezkari sozial eta politikoekin bildu ondoren, premiazko neurriak har ditzan, gure giartearen drama lazgarri hau arintzen laguntzeko.

Horregatik guztiagatik, Udaletik iksuten da egin beharreko lana honakoa hau izanen dela:

- *Eskualdeko bertze udalei akordio hau bidaltzea eta ondokoa proposatzea:*
 - o *Mahai bat antolatzea hauekin: enpresarioak, lanbide eskolak, sindikatuak eta udalak.*
 - o *Parlamentuko alderdiei eta Batzordeari bilera bat eskatzea.*
 - o *Nafarroako Berrikuntza, Industria eta Enplegu Konsejeroari bilera eskatzea.”*

10.- ESKARIAK ETA GALDERAK. BESTE UDAL ORGANOEEN KONTROLA.

10.- RUEGOS Y PREGUNTAS. CONTROL DE LOS DEMÁS ÓRGANOS DE LA CORPORACIÓN.

Ez dira burutu.

No se producen.

Besterik gabe, Alkateak bilera bukatutzat eman du 21:30etan.

No habiendo más asuntos, el Alcalde levanta la sesión a las 21:30 horas.

O.E. ALKATEA/ V.B. EL ALCALDE
Josu Irtzoki Agirre

IDAZKARIA/ LA SECRETARIA
Pilar Chueca Intxusta